

KOSTU EGITURA

Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen du, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela.

Kostu egiturek hurrengo ezaugarriak izan ditzateke:

-Kostu finkoak: Gure aterpetxearen mantenua izango da izango dugun kostu finko nagusia. Era berean, tirolinaren eta museoaren mantenua ere ordaindu beharko dugu eta nola ez, ura eta argia.

-Kostu aldagarriak: Gure ekintza ezberdinen arabera, haietarako behar diren materialak izango dira gure kostu aldagarriak. Adibidez, Kanoa kopuru bat erosiko dugu hasieran. Ondoren, gehiago behar izatekotan, erosiko dugu. Gauza berbera gerta dakiguke tirolina zein beste zerbitzuekin.

-Eskala-ekonomiak: Tirolinaren, ur-kirolen eta aterpetxearen eraikuntzarekin gure gastuak oso handiak izango dira, hala ere, denbora pasa ahala bezeroak handituko dira eta lortutako diruarekin, zorrak txikitzea lortuko ditugu.

-Hedapen-ekonomiak: Itsasadarraren ezker aldean nahiko edatuta daude museoak, baina ur-kirolak eta tirolinak ez dute museoak bezalako ospea, horregatik, gure helburua, gure proiektua beste herri batzuetatik zabaltzea da eta horrela, gizartean normalizatzea.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, ordea, duten kalitate-maila handiagatik, baina gure kasuan, kalitate-prezio egokia edukiz funtzionatzea espero dugu.